

“ULIAZPI” FORU ERAKUNDE AUTONOMO ADMISNITRATIBOA

ULIAZPI, Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Autonomoa, 8/1989 Foru Arauaren bitartez sortu zen, eta bere helburua, hain zuzen, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren eta adimen-urritasun larria duten pertsonen arreta egitea da, hainbat eratako zerbitzu eskainiz, hala nola: egoitzazkoak, eguneko zentroa, atsedeen zerbitzua, etxeko laguntza, eta abar.

Uliazpiren Eginkizuna, alde horretatik, Gipuzkoako Lurraldean adimen-urritasuna dutenen eta beren familien bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten zerbitzuak eta laguntzak ematea da.

Horretarako, arreta orokor eta pertsonalizatua eskaintzen dugu, irizpide etikoez, eraginkortasunez eta berrikuntzez baliatuz erabiltzaileak, beren familiak eta erakunde barruko pertsonak pozik egon daitezten, betiere sozialki arduratsua den erakunde gisa jokatu.

Uliazpik hainbat laguntza eta era askotako zerbitzuak eskaintzen ditu, adimen-urritasuna eta laguntza-premia dituzten pertsonen behar eta nahiei egokituak

Uliazpik eskaintzen dituen zerbitzuak hauek dira:

- Etxebizitza
- Eguneko Arreta
- Atsedena edo Aldi Baterako Egonaldiak
- Laguntza Teknikoa

Zerbitzu horien bidez, erabiltzaile bakoitzak banan-banako arreta jasotzen du, "pertsonaren araberako plangintzan" oinarritua, eta horren bidez bizi-kalitatearen dimentsio ugariak lehenetsi eta zehazten dira (ongizate fisiko nahiz emozionala, garapen pertsonala, harremanak eta gizarteratzea, aukerak eta erabakiak hartzea) bakoitzaren behar eta lehentasunen arabera.

ORGANISMO AUTÓNOMO FORAL ADMINISTRATIVO “ULIAZPI”

El Organismo Autónomo de la Diputación Foral de Gipuzkoa ULIAZPI fue creado mediante Norma Foral 8/1989 y su fin es la atención de las personas con discapacidad intelectual grave residentes en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, a través de distintos tipos de servicios como son: residenciales, centro de día, respiro, apoyo en el hogar etc.

La Misión de Uliazpi es proporcionar servicios y apoyos que contribuyen al desarrollo de la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual y sus familias en Gipuzkoa.

Para ello, proporcionamos una respuesta integral personalizada que busca, con criterios éticos, eficiencia e innovación, la satisfacción de las personas usuarias, familias y las personas de la organización, actuando como una entidad socialmente responsable.

Uliazpi proporciona un conjunto de apoyos y servicios diversos, flexibles y adaptados a las necesidades y deseos de las personas con discapacidad intelectual y necesidades de apoyo.

Los servicios que proporciona Uliazpi son:

- Vivienda
- Atención de Día
- Respiro o Estancias Temporales
- Apoyo Técnico

Estos servicios se fundamentan en una atención individualizada basada en una “planificación centrada en la persona” mediante la cual se prioriza y concretan las diversas dimensiones de calidad de vida (bienestar físico y emocional, desarrollo personal, relaciones e inclusión social, elección y toma de decisiones...) en función de sus necesidades y preferencias.

Etxebizitza, eguneko arreta eta atsedeen zerbitzuak Zentroen bidez eskaintzen dira: Donostia (Donostian), Ategorrieta (Donostian), Fraisoro (Zizurkilen), Zubieta (Hondarribian), Zubillaga Dk. (Bergaran) eta Egogain Zentroko solairu bat erabiliz (Eibarren).

Los servicios de vivienda, atención de día y respiro se prestan a través de los Centros: Donostia (en Donostia), Ategorrieta (en Donostia), Fraisoro (en Zizurkil), Zubieta (en Hondarribia), Dr. Zubillaga (en Bergara) y la utilización de una planta del Centro Egogain (en Eibar).

Jarraian aipatzen diren atalak kontuan izanik prestatu da 2016ko aurrekontua:

El presupuesto 2016 se ha elaborado teniendo en cuenta los siguientes aspectos:

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> a) Egungo egoera ekonomikoa. b) Ogasun Departamentuaren jarraibideak, baita Gizarte Politikakoa ere. c) 2014ko ekitaldiko aurrekontua eta itxierako aurreikuspenak. d) Hitzarmen Kolektiboa eta Enplegu Planak betetzea. e) Adin txikikoentzako etxebizitza-proiektu berria. | <ul style="list-style-type: none"> a) Coyuntura económica actual b) Directrices del Departamento de Hacienda, así como del de Políticas Sociales. c) Presupuesto y previsiones de cierre del ejercicio 2014. d) Cumplimiento del Convenio Colectivo y Planes de Empleo. e) Nuevo proyecto vivienda de menores. |
|--|---|

3. Kapituluko diru-sarrerei dagokienez Gizarte Politikako Departamentuak prestatu duen eta onartu den menpeketasunaren, urritasunaren eta buru-nahasmentuaren arretarako zentroetako pertsona erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa arautzen duen Foru Dekretua izan da kontuan. Pertsona erabiltzaileen prestazio eta pentsioetarako aurreikusi den gehikuntza % 0,25ekoa da 2016 urterako.

Con relación a los ingresos en el Capítulo 3, se ha tenido en cuenta el Decreto Foral regulador de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia, la discapacidad y el trastorno mental, que el Departamento de Políticas Sociales ha elaborado y aprobado. La previsión de incremento contemplada para las prestaciones y pensiones de las personas usuarias es de 0,25% para el 2016.

Jarraian, 2016ko aurrekontuan izango diren esku-hartzeen arlorik garrantzitsuenak azaltzen dira.

Seguidamente se exponen las áreas de intervención más relevantes en el presupuesto 2016.

→ ERABILTZAILA ETA FAMILIEN ARLOA

→ AREA PERSONAS USUARIAS Y FAMILIAS

2016ko aurrekontuan, beren autonomia garatzeko, mantentzeko eta areagotzeko beharrezkoa den entrenamendua eskaintzeko xedea duten programez gain, pertsona horiek eguneroko bizitzako jarduera eta egoeretan parte har dezatela sustatuz.

El presupuesto 2016, contempla los mismos programas encaminados a proporcionar el entrenamiento necesario de cara a desarrollar, mantener y maximizar su autonomía, procurando una participación de estas personas en las actividades y situaciones de la vida cotidiana.

Adin txikikoen itxarote-zerrendaren larritasuna dela eta, ezinbestekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak pertsona horiekiko dituen betebeharrak erantzun bat ematea. Horrela, 2016an sei adin txikikorentzat etxebizitza bat irekitzea aurreikusten da Loiolako Erriberan, eta horrek, aldi berean, ahalbidetu egingo du egungo unitatea gaur egun helduei eskaintzen dieguna baino laguntza handiagoa behar duten pertsonentzat nahiz gazteentzat xedatzea.

→ PERTSONEN ARLOA

2016ko aurrekontuan, zerbitzu eta programa desberdinen premiei erantzungo dien plantilla nolakoa izango den zehaztu da, edota urteko Hitzarmen Kolektiboan orain berriki erdietsitako Hitzarmenetik ondorioztatzen direnak.

Uliazpiko Gobernu Batzordeak 2012ko azaroaren 28an onetsitako “antolamendu-aldaketaren” ondorioz Lanpostuen Zerrendan egindako aldaketak aipatu behar ditugu, honek hori pixkanaka aplikatzea zeukan aurreikusita.

Halaber, arreta berezia merezi du Uliazpin euskararen erabileraren Normalizaziorako Plan berria aplikatzearen ondorio den erreferentzia ekonomikoak, horrek ahalegin ekonomiko eta pertsonal handia egin behar izatea ekarriko du, eta horrenbestez, beharrezko baliabideak jarri beharko dira hori lortzeko; 2016tik 2017rako tarte horretan aurreikusi dugu baliabide horiek jartzea.

Beste alde batetik, Gobernu Batzordeak 1997ko urriaren 20ko Erabakiaren bitartez onetsitako Enplegu Publikoaren Planak aurreikusten zuen (1998ko urriaren 5eko Erabakiz onetsitako Giza Baliabideak Zentzuz Erabiltzeko Planean barneratua), beste jarduera batzuen artean, Gobernante/aren plazak amortizatzea eta Unitateko Arduradunaren plazak sortzea. Hori aspaldi gauzatu zen Fraisoro eta

La urgencia de la lista de espera de menores, hace necesario dar respuesta a las obligaciones que la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene con estas personas. Así en el 2016, está previsto la apertura de una vivienda para seis menores, en el barrio de Riberas de Loiola, lo que a su vez permitiría reconvertir la actual unidad en una vivienda para jóvenes y personas que necesitan niveles de apoyo superiores, a los que en la actualidad estamos proporcionando a las personas adultas.

→ ÁREA PERSONAS

En el presupuesto 2016 se ha contemplado la plantilla que responde a las necesidades de los distintos servicios y programas, así como las derivadas del Acuerdo recientemente alcanzado en el Convenio Colectivo anual.

Debemos señalar las modificaciones recogidas en la Relación de Puestos de Trabajo fruto del “cambio organizativo” aprobado por la Junta de Gobierno de Uliazpi con fecha 28 de noviembre de 2012, que preveía una aplicación progresiva del mismo.

Asimismo, especial atención merece la referencia económica que se deriva de la aplicación del nuevo Plan de Normalización del uso del euskera en Uliazpi, que va a conllevar un importante esfuerzo tanto económico como personal y, por tanto, exigirá articular los medios necesarios para su consecución y que hemos previsto para un período comprendido entre el 2016 y 2017.

Por otra parte el Plan de Empleo Público aprobado por la Junta de Gobierno mediante Acuerdo de 20 de octubre de 1997, e incluido en el Plan de Racionalización de Recursos Humanos aprobado por Acuerdo de 5 de octubre de 1998, preveía, entre otras actuaciones, la amortización de plazas de Gobernante/a y la creación de plazas de Responsable de Unidad. Esto se llevó a cabo hace tiempo,

Zubieta Zentroetan, eta orain, berriz, bidezkoa da, horretarako aukera ematen duten ezaugarriak betetzen direnez gero, Donostia Zentroan ere gauzatzea.

→ INBERTSIOAK

2016ko aurrekontuan, zerbitzuen mantentze-lanak egiteko eta aplikazio informatiko berriak garatzeko beharrezkoak diren inbertsioez gain, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuarekin batera Fraisoro Zentroko energia-sorkuntzarako sistema birmoldatzeko obrak burutzeko finantzaketa ere jasotzen da. Era berean, kontu-sail bat jasotzen da Loiolako Erriberan Etxebizitza bat atontzeko (alokairuan), baita altzariz hornitzeko ere.

→ BESTE BATZUK

2015. urtearen amaiera eta 2016. urtearen hasiera aldera, 2016-2019 Plan Estrategikoa garatuko dugu, baita 2016ko Kudeaketa Plana ere.

Halaber, zehaztutako Kudeaketa Ereduan aurrera egiten eta FEAPS Kalitate Ereduaren ziurtapenari eta Berdintasun Planari amaiera ematen jarraituko dugu.

en los Centros Fraisoro y Zubieta, y corresponde ahora, ya que se producen las circunstancias que lo posibilitan, llevarlo a cabo en el Centro Donostia.

→ INVERSIONES

En el presupuesto 2016 se incorporan, además de las inversiones necesarias para el mantenimiento de los servicios y el desarrollo de nuevas aplicaciones informáticas, la financiación junto al Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la ejecución de las obras de remodelación del sistema de generación energética del Centro Fraisoro. Así mismo se contempla una partida para la habilitación de la Vivienda en Riberas de Loyola (en alquiler) así como su amueblamiento.

→ OTROS

A finales del 2015, principios del 2016, desarrollaremos el Plan Estratégico 2016-2019, así como el Plan de Gestión 2016.

Seguiremos avanzando en el Modelo de Gestión definido y en la finalización de la acreditación en el Modelo Calidad FEAPS, así como en el Plan de Igualdad.




01 Departamentua "Uliazpi Fundazioa" Foru Erakunde Autonomoa

Departamento 01 Organismo Autónomo Foral "Fundación Uliazpi"

(Mila eurokotan/Miles de euros)

Programak	PERTSONAL. GASTUAK 1	OND.ARR.ETA SERB.EROSK 2	FINANTZA GASTUAK/ 3	TRANSFER. ARRUNTAK 4	INBERTSIO ERREALAK/ 6	KAPITALAREN TRANSFER. 7	AKTIBO FINANTZAR./ 8	PASIBO FINANTZAR./ 9	Aurrekontu Guztira
Programas	GASTOS DE PERSONAL	COMPR.BIEN. CORR.Y SERV	GASTOS FINANCIEROS	TRANSFER. CORRIENTES	INVERSIONES REALES	TRANSFER. DE CAPITAL	ACTIVOS FINANCIEROS	PASIVOS FINANCIEROS	Total Presupuesto
01."ULIAZPI FUNDAZIOA" Foru Erakunde Autonomoa Organismo Autónomo Foral "FUNDACIÓN ULIAZPI"	12.719,00	4.704,00	0,00	0,00	544,56	0,00	400,00	0,00	18.367,56
Departamentua Guztira	12.719,00	4.704,00	0,00	0,00	544,56	0,00	400,00	0,00	18.367,56
Total Departamento									



- 1. GTOS. PERSONAL
- 2. COMPRA BNES. CTES. Y SERV.
- 6. INVERSIONES REALES
- 8. ACTIVOS FINANCIEROS